



Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

BAKARTXO TEJERIA
Donostia, 2024ko apirilaren 14a

Alderdikideok, alderdizaleok, lagunok, eguerdi on!

Astebete. Zazpi egun falta dira botoa ematera joateko. Zazpi egun dena emateko. Goazen irabaztera Gipuzkoan. Goazen irabaztera Euskadin. Eta horretarako zu behar zaitugu. Zuek behar zaituztegu. Herri honen etorkizuna da jokoan dagoena.

Inkesten asteburuan gara. Eta beste kanpaina batzuetatik ikasi duguna da baliozko inkesta bakarra apirilaren 21ekoa izango dela. Ezin gara inkestez fidatu, ez ondo ematen digutenean, ezta gaizki ematen digutenean ere. Inkesten zaratak ez gaitzala despistatu. Inkesten balio bakarra botoaz zalantzan dauden lagunen kopuruan dago: hamarretik hiru zalantzan dira. Asko dira.

Boto horiek, GUZTIA aldatzen dute. Botoa erabaki gabe duten pertsonak dute hauteskunde hauen giltza. Beraz, zalantzan dauden guztiei azaldu behar diegu; zergatik bozkatu behar den, eta zergatik PNVren botoa aukeratu behar duten.

Zergatik bozkatu behar da? Bestela, gutxien gustatzen zaizkizun horiek goberna dezaketelako. Eta zergatik aukeratu behar da Euzko Alderdi Jeltzalearen boto-papera? Ibilbideagatik, koherentziagatik, ekimenengatik eta etorkizunerako duen proiektuagatik, PNV da aukerarik onena, bakarra, Gipuzkoak eta Euskadik aurrera jarrai dezan.

Eta arrazoi horiek azaldu nahi ditut:

Bat, gure ibilbideagatik. Euzko Alderdi Jeltzaleak herri hau gidatu eta gaur dagoen tokiraino ekartzeko ikuspegi estrategikoa izan duelako.

PNVk Euskadi egituratu eta instituzionalizatu du;

- industria-birmoldaketa eta euskararen berreskurapena bultzatu ditu;
- Osakidetza, Ertzaintza, EITB eta diru-sarrerak bermatzeko errenta sortu ditu,
- gure hezkuntza-sistema eta gizarte-ongizateko sistema abian jarri ditu.
- PNVk bideratu du Pasaiaren biziberritzea eta Loiolako kuartelen birmoldatzea.
- Gernikako Estatutua, Kontzertu Ekonomikoa eta Estatutu Politiko Berria bultzatu ditugu.

Izan ere, herri honen eta Euskadiren eraikuntza nazionala eta soziala Euzko Alderdi Jeltzaleari estu lotuta izan dira, dira eta izango dira. Eta hori guztia batzuek eta besteek jarritako oztopoen gainetik pasata egin dugu.

Bi, koherentziagatik. Beti izan gara leialak gure printzipio eta balioekin. Alderdi abertzalea gara eta gure proiektua giza eskubide guztien defentsan, askatasunean, demokrazian, berdintasunean, elkartasunean eta justizia sozialean oinarritzen da.

Euskal herritarren borondatean oinarrituta eta haien eskutik egin dugu politika. Beti. Inposizioak ez baitu lekurik gure politika egiteko moduan.

Beste batzuek herriaren izena erabiliz, baina herriarekin kontaktu gabe, inposatu izan eta nahi dute bere nahia. PNVk, aldiz, beti herriarekin izan eta herriarekin erabaki du. Gure ADNan da eta horrela jarraituko du izaten.

Eta hiru, etorkizuneko proiektuagatik. Programak alderatzea nahikoa da PNV proposamen errealista eta zehatzak dituen alderdi bakarra dela egiaztatzeko: 10 ardatz estrategiko eta 575 neurri zehatz ditugu euskal herritarren beharrei erantzuteko.

Badirudi alderdi batzuei kanpaina luzeegia egiten ari zaiela. Ez dute denbora gehiegirik behar PNV kritikatzeko edo "ziklo aldaketa", "erregenerazioa", "irribarreak", "ilusioa" bezalako hitz hutsak aipatzeko, kontzeptu horiek zertan zehazten dituzten azaldu gabe.

Guk denbora guztia –eta gehiago– behar dugu gure programaren ekimenak azaltzeko. Imanolek bi hilabete eta erdi daramatza programa ezagutzera ematen. Neurri asko, garrantzitsuenak aurkeztu ditugu jada. Baina askoz gehiago daude. Eta guztioi eragiten diguten neurriak dira.

Osakidetzan 1250 milioiko inbertsioa dugu jokoan, Tolosako Ospitale berria irekitzeko, Donostia, Zumarraga eta Arrasateko ospitaleak handitzeko, Irunen eta Donostian lehen mailako arretako azpiegitura berriak irekitzeko, edo Donostiako minbiziaren aurkako protonterapia zentro berria abian jartzeko, besteak beste.

Eta etxebizitzagatiko kenkariak defendatzeaz ari gara. Errenta-aitorpena egiteko garai honetan, hipoteka duzuenok ondo baino hobeto dakizue zertaz ari garen: 1950€ko kenkaria. Urtez urte 330.000 lagunek jasotzen dutena.

Baten batzuek ezabatu egin nahi dute. Euzko Alderdi Jeltzaleak indarrez defendatuko du, orain eta gero. Gaur egun jasotzen duzuenontzat eta etorkizunean etxebizitza bat erosteagatik jasoko dutenentzat.

Bi adibide hauek hauteskunde hauek zenbateraino diren garrantzitsuak erakusten digute. Herri honen ongizatea eta etorkizuna ditugu jokoan. Ongizate pertsonala eta kolektiboa. Eta gure etorkizun askea.

Horregatik, hasi bezala bukatuko dut. Behar zaitugu. Behar zaituztegu. Goazen irabaztera Gipuzkoan. Goazen irabaztera Euskadin. Izan kritiko, izan exigente, baina fida zaitezte PNVrekin, ez dizue huts egingo. Eman botoa PNVri. Guztion artean lortuko dugu: 21ean lehen indarra izatea eta Imanol Pradales hurrengo Lehendakaria izatea.

Gora Euskadi askatuta!